

EZ ETA BAI

GOIZIAN goiz asi, ta gabeko azkeneko ordu arteraño isildu gabe, bai ta ez, egoten diran gizonak, badira.

Ta ez bat bakarra, naikua baño geyago ere bai.

Onelakuetan esaten dute emakumiak:

— Gu gerala berritsubak esango dute gero, gizasemiak ere badakite guk añian. Itza banatu zanian an ziran oyek ere.

Egun argiya oso argitu gabe zeron oraindik, goiz batian azoka batera juateko asmoan, beren echeetatik irten ziranian Antón Mari, ta Batišta.

Aldapa gora asi ziran bi gizonak, eta belaska baten atzetik chori bat ego biziyan itzuli juan zan.

¡Ara! oju egin zuten bi gizonak batian, eskuetatik choriak itzul egin ziotela ikusi zutenian.

Lenbiziko «¡ara!» ori biyak berdin esan zuten. Ez ordia bigarren itza.

Batek: ¡a zer birigarrua!, esan zuben.

Bestiak berriz: ¡a zer šošua!

Ta sosua zala batek eta birigarrua zala bestiak ara non sortu zuten ez da bai azken gabekoa.

Guchiyenaz ordu terdiyan iraun zuten leku berian, batak bestiari bere iritzia sartu nairik.

Azkenian noizbait ere bidiari jarraitu zioten esanaz batek:

—Buru gogorra aiz, begiyen aurrian dagon gauza orrela ukatzeko, ikusi ez banu bezela birigarrua zala.

—I aiz i, buru gogorra, esan šošua dala ta ziñetzi biar ez. Ez nikan esango orren zetoza itzanikan.

Eta beriala beste geldi eldiya, šošua zala batak eta birigarrua zala bestiak, geruago ta gogotsuago eutsiyaz.

Zer esan berririk etzuten eta orduban gauza berak indartsuago, oju-ka ta karrašika, esaten zituzten. Bazirudien zeñek zarata geyago atera ari zirala. Mendi guztia aidian zeukaten beren zalapart eta iskanbillakin.

Eta garai artako isiltasunian oyartsunak berriztatzen zituen itz abek: šošua, birigarrua.

Noizbait ere azoka lekura irichi ziran. Ez berialakoan. Makiñabat geldi aldi birian egin ondoren.

—Ez diat geyago aitaturko ere, ziyon batek.

—Ez nik ere, ez diat itzik egingo gai ortan.

—Birigarrua zala neronek, nere begiyakin ikusi ta ukatzeko.

—Sošua argi asko ikusi, ta birigarrua zala esan neri. Sošua nola-koa dan ez bagenekiguke bezela,

Eta ziyo batek eta ziri bestiak, eraso zioten berriro beren zetari azoka'ko leku bertan, gai ortaz itz egin biar etzutela esan ondorian, arkitu ziran arteraño.

Gero bataren eta bestiaren lagunak bildu ziran, batak alde batera ta bestiak bestera beren gertaera esan zioten, eta andik denbora puška batera etzan alde guzietan bi itz abek besterik entzuten: šošua, birigarrua.

Ez dakit ezer erosketik egin zuten azoka artan, chal batzuen ondolik ibilli ziran bai, baña ez deizkiot ezer egin zutenik. Izan ere šošua edo biragarrua zan erabakitzen bazaukaten lana naikoa.

Bazkaitara juan ziran eta ordu laurden bat baño len, ostatuan zeuden guziak gai batez ari ziran izketan: birigarrua ta šošua.

Birigarrua onelakua izaten da, šošua alakua; era ontan egan egiten du batek, onelako antza du bere egoan bestiak, mokua onelakua ta alakua, ezagunak dira bata ta bestia; izketa abek zabiltzan guzien aboetan. Noizian bein Anñon Mari'k oju egingo zuben:

—Birigarrua zala, ziur bazekiat.

Batiata'k erantzuten zuen orduan:

—Ez jauna, šošua; ez diazute erakutziko šošua nolakua dan.

Bazkariya amaitu zan bañan ez «ez ta bai» ura, ta beren zeta arrekin echerako bidea artu zuten, eta ibillaldi guzian etziran iñldu batak birigarrua ta bestiak sosua zala ikusi zuten chori ura esanaz.

Echeratu baño len ardantegira juan ziran. ¡Izan ere itzik egin gabe nola echeratuko ziran! Ardantegiyan ere ez ta bai bera sortu zan, eta

iraun zuben, guztiak alde egin zuten arte. Azkenekoak, An̄ton Mari ta Batišta irten ziran; eta batak bestiari beta ezin emanik, geruago ta indartzuago oju eḡiten zion, batak šošuua zala, bestiak birigarra.

Gabardiya igarora zan eta Batista'ren emaste gajoa kesketan zegon senarra echeratu etzalako oraindik. Alakorik batian zalaparta aundi bat entzun zuben, zabaldu leyoa ta ikusi zituben bi gizonak aterian beren birigarro ta šošuakin gero baño sutsuago leyan ari zirala.

—Zer šošo ta zer birigarro, oju egin zioten andre gajuak, garai ontan ez dago šagušarrak beste choririk.

A. DARRA
